

# XEMARTINEN XERRI LOTERIA

- (Monologue) -

*(Xemertin arrove à l'avant scène, devant le rideau baissé, un panier au bras et un porcelet dans le panier. Il soulève à peine son béret et commence respectueusement et avec une certaine timidité, avec gaucherie)*

Barkatu, Jaun Erretora konpañiarekin, eta Jainkoak aratsalde on guzier!...  
Nere ausartzia handia da,... ez liteke ni bezalako erromesari toki huntan agertzea,  
zueri mintzatzea,... ez samur, othoi... berri eta xede onez nabila...  
Laster eta laster bidez ethorri naiz beldurrez berantegi hunaraino heltzea...

*(s'essuyant le front avec lo mouchoir, respirant bruyamment et avec aplomb)*

Haaa, Hats hartzen dut... haaa... ez dut pijaja alferrik egin;... badakizue hatsa beharrezkoa dela!... Hatsik gabe,... hum... gizona gutti, izanik ere ihaurri ogi, arno eta aberastasun...

Hots!... huna nun garen biak..., bai biak,... ni, eta...  
*(désignant lu panier qu'il a au bras)* hortxeko xistroan patxadan dagon..., salbu zuek..., nere xerritegiko umerik miresgarriena...

Zer nauzue... Aditu dut gure Jaun Erretorak loteri bat egiten zuela bere obra onentzat... Berehala, ethorri zaut gogora, nere memento huntan, laguntza on bate, ahala... Futso! ...orain duela zombait egun,... zauzte... gauden ortziralean xuxen,... urdeak omen dauzkit zortzi une xarmant,... bat bertzea bezen xarmantik...

Egin dut nere buruari: «Errak, Zemartin, bat edereitzen bahu Jaun Erretorari loteriatzeko?... Ez lukek astokeria... mutikoa, berdin pobre eta aberats izanen haiz,... ahatik, obra onetal parte hartuko duk... Baduk zerbeit hori...

Hala pentsatu, hala egin,...

Heman nion berehala begia hemen dutan kumiari... Ez ditut, ez bertzeak mespresatzen,... denak ikusgarriak dire, sun bat partikularra hainda xuria, gixena, gottorra, garbia, kurrinkero fina,... eta nihon baratzen, bere haurrideez nahi duena egiten du,... mutur kolpe ase leher egin arte,... gero, ala bainan, egoiten da etzana zabal, zabala, luze, luzea, prestu, prestua, korrokaka lo, arteka pufadaka...

Nere hauta egina nuen beraz; arras kontent nintzen... Ba, bainon, baziren bertze, begi batzuk nereak bezen zorrotzak gure, xerrigegiari behatu zutenak!... Nere hauzoko Kadeten begiak...

Eldu zaut atzo... «Xemartin, behar nauk xerri kume horietarik bat saldu.— Igoal, Kadet,... hautazak...».

Dener ontsa behatu ondoan erraiten daut:

— To, huna nik behar dutena

— Zoin?...

— Hementxeko hau...

Debruntxoa!... Preseski, hemen dutan kumea zuen hautatua... Ez nintzen hortarik ari!!!...

— Ez hori, Kadet, horren enplegua badiat. Hartzak bertze horietarlk edo zoin...

— Hori diat, ba, gustukoa, Xemartin...

— Igualdik, hori ez dajat salduko... Behazak mutur beltz, hori, ederragoa, duk, bertzeak ere ez dituk malurusak...

— Iduri zuen debru guziek argitzen eta ibiltzen zutela!!!... Atsolutigi, tiki hau nahi zuen... Azkenean, erran nion:

— Behazak, Kadet, ikusiko diat bihar.

Hortan utzi dut...  
Pausan baitago memento huntan, gure Kadet, ixil, ixila xistroan nere xerria polliki kokatu-ta,... haja; haja, ez nahi bezen laster ethorri nizaizute....

*(s'adressant au per celet)*

— Ederretik espakatua haiz, xerritxo!... Ez hitzen, ez, ez diat erraiten, gaizki izanen Kadeten etxean!... badik, alimaleen amodioa, gain, gaintetik gozoki moldatzen ditik. Segurki, izanen huen, arto ixurkin, bazka lodi, esne ondar, betarraba egozi, erres eta shi... Bazukek, bazukek...

Bizkitartean, aithorrak... Jaun Erretoraren loterian ez dai tentekela nola nahizko xerri bat ager... Bertzalde, hi bezalako kume guti baita,... nik erran behar badiat... batere...

*(s'adressant à nouveau au public)*

Jende onak, arras kasta onetik da; Sara Uhaldeko-bordako xerri Kasta ai pututik... Sanoa, hazkarra, gizen errexa, prestua,... Kurrinka guti,... sekulan goseak eginarazirik,... ontsa ase ondoan bakarrik iduri kantuz ari.... nunbeit han... arima salbu-ta... gu bezala, funtsean, ongi bazkaldu-ta... tripak janariz eta edariz hart egin arte bete ondoan,... orroaz, gure ostatuko boz ederrenarekin, hantari, pertsulari muntatzen garelarik...

Zer nahi duzue gehiago?... Manera guziz, huntarik eginen da barg bat zoragarria... Jakinazue hau ere, ez zaiola hiltzean odolik kendu behar... Ideki-ta han izanen ditu, bere tripan, odolkiak beltz, beltzak, bero beroak,... ateko pest...

Hirri egiten duzue??...

Sara Uhaldeko-bordako xerri kasta hola egina da... hortako da bazter guzietarik bilatua... Huni ere, ondoko egunetan, gauza bera zaio gertatuko... Ez da probutxurik, hau hautsiko duen kastarik ez da agertzen ahal.... mundu zabala kurriturik ere...

Loria zaizte billetadunak... berma daitezila orainon hartu ez dituztenak... Holako okasionerik ez da maiz eta zoko guzietan gertatzen... Ixtantean berantegi izanen da....

Aio!!... Kadeten sudurra sarri jakinen duelarik nun nuen nere xerri ttipiaren enplegua!!!... Ba... nork daki?... Beharbada, horrek idabazi beharra da!... Holako bitxikeri asko gestatzen da!!!...

Ez dut gehiago zuetaz abusatu nahi... Erran behar nintuen guziak erran ditut... Banoa...

*(s'adressant à Monsieur le Curé)*

Barne hortan, zure baja onarekin, Jaun Erretora, pausatuko dut xistroa bere xerriarekin...

*(au public)*

Segi zazue hola, hola omore on berarekin...  
Agur guzier...

*(puis riant)*

Eta xerri kumearen phartez istan arte loterian irabaziko duenari...

Saint-Pée-sur-Nivelle, le 5 Février 1946  
Dominique Dufau